

Pribatuen Iragak

SPRI, S.A.

4112

IRAGARKIA, Industriaren Sustapen eta Eraldaketa-rako Baltzuarena (SPRI, S.A.), Euskal Autonomia Erkidegoko ETEei beren «Berrikuntza Agendak» definitu, garatu eta berrikusteko laguntza ematen dien Akreditazio Erregistroan sartzeko deialdi berriari buruzkoa.

2007ko ekainaren 19ko Iragakian (uztailaren 2an argitaratu zen EHAAn, 3712. zenbakiarekin) zenbait baldintza zehaztu ziren EAEn Akreditazio Erregistro bat sortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko ETEei beren berrikuntza agendak definitu, garatu eta berrikusten laguntzeko aholkularitzan diharduten pertsona fisiko edota juridikoentzat. Bestalde, 2007ko ekainaren 29ko Iragakian (2007ko irailaren 3an argitaratu zen EHAAn, 4937. zenbakiarekin) argitaratu zen ekimen horri heldu nahi dioten ETEentzako laguntzen araudia, Berrikuntza Agendak programa izenekoa.

Berrikuntza Agendak programak berrikuntza agenda landu, garatu eta berrikusteko laguntza emango du. ETE bateko zuzendaritza taldeak berrikuntzari buruzko gogoeta estrategikoa egin behar du, hori da lehenbizikoa eta behinena, bere enpresaren egoera aztertzeko, eta bere berrikuntza gaitasunen heldutasun mailaren arabera, garatu beharreko arloak eta etorkizunari begira dituen aukerak antzemateko. Hartara, berrikuntza agendaren garapenak bi ekimen mota izango ditu:

Emaitza gisa berrikuntza inkrementala dakarten proiektuak, halaber antolakunde berritzaile iraunkorra eraikitzeko beharrezko gaitasunak garatzeko aukera ere ematen dutenak.

Enpresako proiektu estrategikoak prozesu, produktu, merkatu edo antolaketa berrikuntzaren arloan.

Ekimen horiek SPRI, S.A. garatutako Innova metodologian oinarritzen dira, eta honi buruzko argibideak izateko www.plusinnova.net/kontsultoreak/ web helbidera jo daiteke.

Erregistroa eta programa abian jarri direnetik ia urtebete igaro denean, eta aztertu direnean Erregistroa itxita edukitzearen ondorioak eta aholkularitza sektorearen lehiari buruzko eraginak, beste deialdi baten premia dagoela ikusi da, horrela akreditazio eskaera berriak aurkezteko aukera eskainiko baita.

Anuncios Particulares

SPRI, S.A.

4112

ANUNCIO de la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial (SPRI), S.A., relativo a la nueva convocatoria para acceder al Registro de Acreditación que da soporte a las PYMEs del País Vasco en la definición, desarrollo y revisión de sus «Agendas de Innovación».

Mediante anuncio de fecha 19 de junio de 2007, publicado en el BOPV en fecha 2 de julio de 2007 con el número 3712, se establecieron las condiciones que permiten disponer en la CAPV de un Registro de Acreditación de personas físicas y/o jurídicas dedicadas a la actividad de consultoría para dar soporte a las PYMEs del País Vasco en la definición, desarrollo y revisión de sus agendas de innovación. También mediante anuncio de fecha 29 de junio de 2007, publicado asimismo en el BOPV el 3 de septiembre de 2007 con el número 4937, se publicó la normativa que regula las ayudas a las PYMES que deseen abordar dichas actuaciones, denominada Programa Berrikuntza Agendak.

Este programa Berrikuntza Agendak, da apoyo para la elaboración, desarrollo y revisión de la agenda de innovación. Siendo el elemento inicial y primordial la realización por parte del equipo de dirección de la PYME de una reflexión estratégica de innovación, que aborde la situación actual de su empresa y en función del estado de maduración de sus capacidades de innovación, pueda detectar las áreas a desarrollar y sus oportunidades de futuro. Así, el desarrollo de la agenda de innovación incluirá dos tipos de actuaciones:

Proyectos cuyo resultado es la introducción de una innovación incremental, y que a su vez permitan desarrollar aquellas capacidades necesarias para construir una organización innovadora sostenida.

Proyectos estratégicos para la empresa en el ámbito de la innovación de proceso, producto, mercado u organización.

Las anteriores actuaciones se sustentan en la metodología Innova, que ha sido desarrollada por SPRI, S.A. y que puede consultarse en la siguiente dirección web www.plusinnova.net/kontsultoreak/.

Transcurrido casi un año desde el establecimiento del Registro y de funcionamiento del programa, y después de considerar los efectos de mantener cerrado el Registro sobre la competencia en el sector de consultoría se ha visto la necesidad de promover otra convocatoria para que puedan presentarse nuevas solicitudes de acreditación al citado Registro.

1.- XEDEA.

Deialdi berri bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko ETEei beren «Berrikuntza Agenda» definitu, garatu eta berrikusten laguntzeko aholkularitzan diharduten pertsonentzat, aholkulari gehiago sar daitezzen Erregistroan; eta, horretarako, iragarki honek garatzen duen akreditazio prozesua abiatu da.

2.- ESKATZAILEAK.

Aholkularitza jardueran diharduten pertsona fisikoak, baldin eta herri administrazioekin lotutako edo haien mende dauden eta nortasun juridikoa duten erakunde eta sozietate publikoetan enplegatuta ez badaude, ez eta Administrazio Institutuzionalean ere, zeinahi dela ere Administrazioa. Era berean, salbuetsita daude Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Agente akreditatuak ere, hala nola enpresen edota profesionalen elkarteak.

Eskatzaileek edo beren enpresek foru ogasunei dago-kenez eta Gizarte Segurantzari begira zerga betebeharrak aseak dituztela egiaztatu beharko dute, indarrean dagoen legeriaren arabera eska litezkeen muga barruan betiere.

Hautagaiek deialdiak eskatzen dituen prestakuntza eta esperientzia profesionaleko baldintzak bete beharko dituzte, eta horretarako, pertsona horiek Innova ekimenean aholkulari gisa akreditatzeko eskaeran beren curriculum datuak bete beharko dituzte. Era berean, SPRI, S.A.k eskaeran beste datu osagarri batzuk ere eska litzake aholkularitza enpresari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko ETEen aukeraketa errazteko.

SPRI, SAK, era berean, egoki irizten dion zeinahi dokumentazio ere eska lezake.

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa sareari buruzko egiazko ezagutza frogatu ondoren, gutxienez 10 urteko esperientzia duten hautagaiak hautatuko dira; orobat, 5 urteko gutxieneko esperientzia egiaztatua beharko dute honako arlo hauetan:

Kudeaketa sistema edota ereduen ezarpena zuzentzea.

Prozesu, produktu/zerbitzu, merkatu eta antolakuntza arloetan berrikuntza proiektuak definitzea edota abian jartzea.

Berrikuntza edo teknologi arloko diagnostikoak egitea.

Berrikuntza edo teknologi arloko planak egitea.

Plan Estrategikoen prestakuntzan parte hartzea.

Hautatzen diren pertsonak Innova metodologian prestatuko dira eta, aipatu tramitea probetxuz gaingiditu

1.- OBJETO.

Realizar nueva convocatoria que añada nuevas personas consultoras al Registro de Acreditación que da soporte a las empresas de la CAPV en la definición, desarrollo y revisión de la «Agenda de Innovación», para lo que se inicia el proceso de acreditación que desarrolla este anuncio.

2.- SOLICITANTES.

Personas físicas dedicadas a la actividad de consultoría que no estén empleadas en empresas que tengan la consideración de entidades y sociedades públicas con personalidad jurídica propia vinculadas o dependientes de las Administraciones Públicas, así como tampoco aquellas pertenecientes a la Administración Institucional, cualquiera que sea la Administración en la que se integren. Quedan excluidos igualmente los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, acreditados a tal efecto, así como las Asociaciones de empresas y/o profesionales.

Los solicitantes o las empresas a las que pertenezcan deberán acreditar que se encuentran en situación regularizada en cuanto a sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social, según los límites que resulten exigibles de acuerdo con la legislación vigente.

Las candidaturas deben cumplir los requisitos de capacitación y de experiencia profesional exigidos por la convocatoria, para lo cual, dichas personas deberán complementar datos curriculares en la solicitud de acreditación como consultor/a de la iniciativa Innova. Adicionalmente, SPRI, S.A. podrá requerir en la solicitud algunos datos complementarios sobre la empresa consultora a los efectos de facilitar la elección a las PYMEs vascas.

SPRI, S.A. podrá asimismo solicitar cualquiera otra documentación que estime necesaria.

Se seleccionarán aquellas candidaturas que, demostrando un conocimiento real del tejido empresarial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, posean una experiencia profesional mínima de 10 años, exigiéndose, adicionalmente, el acreditar una experiencia mínima de 5 años en la:

Dirección de implementación de sistemas y/o modelos de gestión.

Definición y/o implementación de proyectos de innovación en los ámbitos de proceso, producto/servicio, mercado y organización.

Realización de diagnóstico de innovación o tecnológico.

Elaboración de planes de innovación o tecnológicos.

Participación en la elaboración de Planes Estratégicos.

Las personas así seleccionadas serán formadas en la metodología Innova y, pasando dicho trámite con apro-

ondoren, ulertuko da beren enpresekin batera, honako konpromiso hauek hartzen dituztela beren gain:

Innova metodologiari buruzko prestakuntza eta informazio jardunaldietara joan beharko dute.

Berrikuntza agendaren definizioa, garapena eta berrikuspenera egingo dute, Innova ekimenak zehaztutako metodologiari jarraiki.

Berrikuntza agendaren definizio eta berrikuspen esperientzien emaitzak diren praktika berritzaileak proposatzea, gaikuntza proiektuak garatzea eta ETEentzako berrikuntza proiektuen definizioa, Innova metodologiari jarraiki.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako epeetan eta Innova ekimenak haien esku jarritako tresna informatikoak eta argibideak erabiliz.

Egindako lanak ezartzen den datetan, forman eta balioespen ekonomikoekin fakturatzeko.

Ezartzen diren baldintzetan, materialak prestatzen eta hedapen jarduerak egiten laguntzea, ekitaldien eta argitalpenen bidez.

Innova ekimenaren aplikazio informatikoan aholkulariari buruz sartzen den informazioa eguneratua izatea, bereziki merituei eta hark landutako berrikuntza proiektuei dagokienez.

Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak Erregistroan sartuko dira. Aipatu Erregistroa ezagutzera emango da www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/ web orrian, euskal ETEek, iragarki honetan jasotako zerbitzuak egiteko egokien irizten dioten aholkularia hautatu ahal izateko.

SPRI, SAK, aholkulari bakoitzak egindako lanaren ebaluazioaren eta ezarritako prozedurari erakutsitako begirunearen arabera, Innova ekimenean parte hartzeko haren akreditazioa balioegabetzeko eskubidea gordetzen du.

Lanaren objektibotasuna eta kalitatea bermatzeko baldintza gehigarri gisa, kontuan izan beharko da aholkulari gisa erregistratuta daudenean eta haien aholkularitza enpresek ezingo dutela inolako loturarik izan, ez akziotan, ez partaidetzatan, zuzenean edo zeharka, haien zerbitzua jasoko duten enpresekin.

Erregistratuta dauden aholkulariak +i Club Consultoría-aholkularitza klubeko kide izan daitezke, eta eskubidea izango dute klubak aholkularientzat programatzen dituen jardueri buruzko informazioa jasotzeko eta jarduera horietan parte hartzeko.

3.- ESKAINIKO DIREN ZERBITZUAK.

Akreditazioaren xedea da hainbat zerbitzu eskaintzea Berrikuntza Agendak programaren esparruan, eta honela banatzen dira zerbitzu horiek:

vechamiento, se entiende asumen junto con, en su caso, las empresas a las que pertenezcan, los siguientes compromisos:

Asistir a las jornadas formativas e informativas sobre la metodología Innova a las que se les convoquen.

Realizar la definición, desarrollo y revisión de la agenda de innovación siguiendo la metodología definida por la iniciativa Innova.

Proponer prácticas innovadoras resultado de las experiencias de definición y revisión de agendas de innovación, desarrollo de proyectos de capacitación y definición de proyectos de innovación en las PYMEs, siguiendo la metodología Innova.

Presentar la documentación requerida, en los plazos establecidos y usando las herramientas informáticas e instrucciones puestas a su disposición por la iniciativa Innova.

Facturar los trabajos realizados en las fechas, forma y valoración económica que se establezca.

Colaborar, en las condiciones que se establezcan, en la preparación de materiales y en actividades de difusión, mediante eventos y publicaciones.

Mantener actualizada la información que sobre la persona consultora se incluya en la aplicación informática de la iniciativa Innova, especialmente en lo concerniente a sus méritos y proyectos de innovación desarrollados.

Con posterioridad a la formación, las personas consultoras pasarán a formar parte del Registro. Dicho Registro se hará público en la web www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/ para que las PYMEs vascas puedan seleccionar la persona consultora que consideren más adecuada para la realización de los servicios que en este anuncio se contemplan.

SPRI, S.A., en función de la evaluación de los trabajos realizados por cada persona consultora, y el respeto que se muestre al procedimiento establecido, se reserva el derecho a revocar su acreditación para participar en la iniciativa Innova.

Como requisito adicional para asegurar la objetividad y calidad del trabajo deberá tenerse en cuenta que las personas registradas como consultoras y las empresas de Consultoría a las que pertenezcan, no podrán tener vinculación, ni accionarial, de participaciones, directa o indirectamente, con las empresas a las que presten el servicio.

La pertenencia al Registro dará derecho a pertenecer al +i aholkularitza kluba-club consultoría, y a ser informado y participar en las actividades que el mismo programe para consultores con este perfil.

3.- SERVICIOS A PRESTAR.

La acreditación tiene como objeto varios servicios a prestar en el marco del programa Berrikuntza Agendak, agrupados de la siguiente forma:

«Berrikuntza Agenda» definitzeko edo berrikusteko laguntza.

«Berrikuntza Agenda» garatzeko laguntza.

3.1.– EAeko ETEek «Berrikuntza Agenda»k definitzeko edo berrikusteko laguntza.

Zerbitzu hauen xedea programako ETE onuradunei laguntzea da, Innova metodologiaren arabera barne hausnarketa prozesu bat egin dezaten, eta horren ondorioa beren «Berrikuntza Agenda»ren definizioa edo berrikuspena izan dadin.

3.1.a.– «Berrikuntza Agendaren Definizioa» zerbitzuan aholkulariak 9 lanaldi osoko laguntza eskainiko dio ETEari, gehienez 3 hilabeteko epean.

3.2.b.– «Berrikuntza Agendaren Berrikuspen» zerbitzuan, berriz, aholkulariak 3 lanaldi osoko laguntza eskainiko dio ETEari, gehienez 2 hilabeteko epean.

SPRI S.A.k, «Berrikuntza Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/) programaren barruan, zerbitzuen kostua hartuko du bere gain, honako iragarri honetako 4. atalean zehaztuta gelditzen dena. Zerbitzu hauetarako, SPRI, S.A.k kontratatu eta ordainduko du zuzenean ETEak hautatutako aholkularia, honako iragarri honetan ezarritako prozeduraren arabera egiatzatutako artean. SPRIren laguntza ETEaren berrikuntza agendaren lehen definizioa eta lehen berrikuspena mugatzen da.

3.2.– EAeko ETEek «Berrikuntza Agendak» garatzeko laguntza.

Zerbitzu honen xedea programako onuradun diren ETEei laguntza ematea da «Berrikuntza Agenda»n barne hartutako proiektuak gara ditzaten. Laguntza jarduerak bi dira:

3.2.a) «Gaikuntza proiektua» Zerbitzua: zerbitzu horri esker, ETEaren barruko gaikuntzarako proiektuak garatzen dira, eta berrikuntza sistematikorantz aurrera egiten lagunduko dioten kultura bat errotzeko lan ohitura berriak sartzen dira. Zerbitzuaren gehienezko iraupena 3 hilekoa izango da, eta aholkulariak 6 lanaldi erabiliko dituela estimatzen da.

3.2.b) «Berrikuntza proiektuen definizioa» Zerbitzua: zerbitzu horri esker, berrikuntza proiektuen aurreproiektua egiten da, berrikuntza agendan dauden prozesu, produktu/zerbitzu, merkatu eta antolakuntza arloetan. Zerbitzuaren gehienezko iraupena 2 hilekoa izango da, eta aholkulariak 4 lanaldi erabiliko dituela estimatzen da.

SPRI, S.A.k, «Berrikuntza Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/) programaren barruan,

Apoyo para la definición o revisión de la «Agenda de Innovación».

Apoyo para el desarrollo de la «Agenda de Innovación».

3.1.– Apoyo a las PYMEs de la CAPV para la definición o revisión de sus «Agendas de Innovación».

El objeto de estos servicios es el apoyo a las PYMEs beneficiarias del programa para el desarrollo de un proceso interno de reflexión, según la metodología Innova, que de cómo resultado la definición, o en su caso, revisión de su «Agenda de Innovación».

3.1.a.– El servicio «Definición de la Agenda de Innovación» supone, por parte de la persona consultora, un apoyo a la PYME, equivalente a 9 Jornadas completas de la persona consultora en un plazo máximo de 3 meses.

3.1.b.– El servicio «Revisión Agenda de Innovación» supone, por partes de la persona consultora, un apoyo a la PYME, equivalente a 3 jornadas completas de la persona consultora en un plazo máximo de 2 meses.

SPRI, S.A., en el marco del programa «Berrikuntza-Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/), asumirá el coste de estos servicios, cuya valoración en términos económicos queda establecida en el apartado 4 del presente anuncio. Para este servicio, es SPRI, S.A., quien contrata y paga directamente al consultor elegido por la PYME, entre los acreditados de acuerdo al procedimiento establecido en el presente anuncio. El apoyo de SPRI, S.A. se limita a la primera definición de la agenda de innovación de la PYME y a su primera revisión.

3.2.– Apoyo a las PYMEs de la CAPV para el desarrollo de las «Agendas de Innovación».

El objeto de este servicio es el apoyo a las PYMEs beneficiarias del programa para el desarrollo de los proyectos incluidos en la «Agenda de Innovación». Las actuaciones de apoyo son dos:

3.2.a) Servicio «Proyectos de capacitación»: este servicio posibilita el desarrollo de proyectos que sirven para construir capacidades internas en la PYME, incorporando nuevas rutinas de trabajo que consoliden una cultura que le permita avanzar hacia la innovación sistemática. La duración máxima del servicio se estima en un plazo de 3 meses, estimándose una dedicación de 6 jornadas de la persona consultora.

3.2.b) Servicio «Definición de proyectos de innovación»: este servicio posibilita la realización del anteproyecto de los proyectos de innovación en los ámbitos de proceso, producto/servicio, mercado y organización, contenidos en su agenda de innovación. La duración máxima del servicio se estima en un plazo de 2 meses, estimándose una dedicación de 4 jornadas de la persona consultora.

SPRI, S.A., en el marco del programa «Berrikuntza-Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/),

diruz lagunduko du lehen lau proiektuetarako zerbitzuen % 75aren kostua eta hurrengo % 60arena; ekitaldi batean, enpresa berak, gehienez, lau proiektutan lortuko du diru-laguntza. Zerbitzuak duen kostuaren gehienezko muga, diru-laguntza kalkulatzeko soilik, honako iragarki honetako 4. atalean ezarritako balioztapena izango da. Zerbitzu honetarako, ETEa da zuzenean aholkularia kontratatu eta hari ordaintzen diona; hura akreditatuta egongo da zerbitzua eman ahal izateko, honako iragarki honetako prozeduraren arabera betiere. ETEak eta aholkularitza enpresak ez dute zertan, beren kontratuan, honako iragarki honetako 4. atalean ezarritako tarifari lotu. SPRI, SAK ETEari ordainduko dio dagokion diru-laguntza, honako honen arabera: «Berrikuntza Agendak» programak ezarritako eta honako atal honetan bildutako baldintzen, ehunekoen, tarifen eta mugen arabera.

4.- ZERBITZUEN BALORAZIOA.

Honako atal honetan ezarritako balorazioak helburu bikoitza du:

Batetik, 8 orduko lanaldiaren prezioa finkatzea, kostuari dagokionez; SPRIk aholkulariari ordainduko dio lanaldi hori bere berrikuntza agenda definitu edo berrikusteko ETEari emandako laguntzagatik. Bi zerbitzuetan erabili beharreko lanaldiak honako iragarki honetako 3.1. atalean finkatu dira.

Bestalde, erreferentzia izatea gaikuntza edo berrikuntza proiektuak definitzeko diru-laguntzaren gehienezko muga ezartzeko orduan, berrikuntza agenden garapenaren barruan, honako iragarki honetako 3.2. atalean ezarritakoaren arabera.

8 orduko lanaldirako ezarritako tarifa 740,15 eurokoa da, BEZa gabe. Tarifa hori eguneratu egingo da urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, behin betiko argitaratua dagoen urtetik urterako KPIaren gehikuntzaren arabera.

SPRI, SAK ez du beste kontzepturik ordainduko lanaldirako ezarritako tarifa baino, aholkularitza enpresa eta zerbitzuak eskatu dituen enpresa dauden tokian daudela.

5.- ESKAEREN AURKEZPENA.

Eskaerak Innova ekimenaren web orriaren (www.plusinnova.net/kontsultoreak/) bitartez aurkeztu beharko dira iragarki hau EHAA n argitaratu eta hurrengo hamabost egun naturaletan.

Eskaera elektronikoki bidali ondoren, inprimatu, sinatu eta SPRI, SARA (Urkijo zumarkalea, 36-4., Bizkaia Plaza eraikina) bidali beharko da, elektronikoki bidali denetik gehienez 10 eguneko epean, honako dokumentu osagarri hauekin batera:

subvencionará el coste del 75% del servicio para los cuatro primeros proyectos y el 60% de los siguientes, siendo el límite máximo de proyectos con subvención para una misma empresa en un ejercicio de cuatro. El límite máximo del coste del servicio, únicamente a efectos de calcular la subvención, será la valoración establecida en el apartado 4 del presente anuncio. Para este servicio, es la PYME quien contrata y paga directamente a la persona consultora, que debe estar acreditada para la prestación de este servicio de acuerdo con el procedimiento establecido en el presente anuncio. La PYME y la consultora no tienen porque ajustarse, en su contrato, a la tarifa establecida en el apartado 4 del presente anuncio. SPRI, S.A. pagará a la PYME la subvención correspondiente de acuerdo con las condiciones, los porcentajes, las tarifas y los límites establecidos en el programa Berrikuntza-Agendak y recogidos en el presente apartado.

4.- VALORACIÓN DE LOS SERVICIOS.

La valoración establecida en el presente apartado tiene un doble objetivo:

Por una parte, fijar el precio, en términos de coste por jornada de trabajo de 8 horas, que SPRI, S.A. pagará a las personas consultoras por el apoyo prestado a la PYME para la definición o revisión de su agenda de innovación. La dedicación para cada uno de los dos servicios esta fijada en el apartado 3.1 del presente anuncio.

Por otra parte, el servir de referencia a efectos de establecer el límite máximo de subvención para la definición de proyectos de capacitación o de innovación, en el marco del desarrollo de las agendas de innovación, según lo establecido en el apartado 3.2 del presente anuncio.

La tarifa establecida para una jornada de trabajo de 8 horas es de 740,15 euros IVA no incluido. Dicha tarifa será actualizada de acuerdo al incremento del IPC interanual que esté publicado con carácter definitivo el 1 de enero de cada año.

SPRI, S.A. no satisfará ningún otro concepto aparte de la tarifa por jornada, independientemente de donde se ubiquen las empresas consultora y solicitante de los servicios.

5.- PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES.

Las solicitudes deberán presentarse a través de la página web de la iniciativa Innova en www.plusinnova.net/kontsultoreak/ en el plazo de quince días naturales siguientes a la publicación en el BOPV del presente anuncio.

Una vez enviada la solicitud electrónicamente, ésta deberá ser impresa, firmada y enviada a SPRI, S.A. (Alda Urquijo, 36-4.º Edificio Plaza Bizkaia - 48011 Bilbao) en un plazo máximo e improrrogable de 10 días desde su envío electrónico junto con la siguiente documentación complementaria obligatoria:

– Aholkularitza enpresa a) zerga betebeharrekin eta b) Gizarte Segurantzarekin egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

– Aholkulariaren lan bizitzaren ziurtagiria.

– Finantza erakundearen ziurtagiria eskaeran agerian den kontu zenbakia aholkularitza enpresarena dela egiaztatzeko.

Epea igaro ondoren, eskaera eta dokumentazioa jaso ezean, eskaera artxibatu egingo da, eta eskatzaileak eskaerari uko egiten diola ulertuko da.

6.– HAUTESPEN PROZEDURA.

Baldintza formalak eta eskatutako gutxieneko esperientzia betetzen dituzten eskaerak soilik onartuko dira.

Onartutako eskaerak aholkulari bakoitzak aurkeztutako esperientzia profesionala eta proiektuak kontutan hartuta ebaluatuko dira, baita Innova ekimenaren esparruan garatu beharreko lanetarako duten egokitasuna ere.

SPRI, SAK hautespenaren emaitzaren berri emango du 5 hileko epean gehienez eskaera eta erantsi beharreko dokumentuak aurkeztu direnetik zenbatzen hasita. Epe hori igarotakoan eskaerari uko egin zaiola ulertu beharko da.

Prestakuntza bukatutakoan, eta aholkularia eta, hala badagokio, haren aholkularitza enpresaren datuak erregistroan sartu ondoren, SPRI, SAK barne prozedurak antolatuko ditu, aholkulariak bere eskaeran ekimen honetarako adierazi dituen lanaldien edo gehiagoren (beti ere zerbitzua murrizten ez bada) kopuruaz baliadaitezen ETEak.

7.– KONTRATAZIO BALDINTZAK ETA FAKTURAZIOA.

Honako iragarki honetako 3.1. atalean aurreikusitako berrikuntza agendak definitu eta berrikusteko ETEei laguntza zerbitzuak eskaintzen dizkieten eta Innova ekimenak aholkulari gisa akreditatzen dituen pertsonak (aholkularitza enpresetako kideak) honako prozedura honen arabera kontratatuko ditu SPRI, SAK: «Berrikuntza Agendak» programan aurreikusitako laguntzen onuradun den ETE batek Innova ekimenaren barruan jarduteko akreditatuta dagoen aholkulari bat hautatzen duen bakoitzean, SPRI, SAK jakinarazpen bat igorriko dio aholkularitza enpresari. Jakinarazpen horrek eskaera irmo baten balioa izango du, Innova metodologian ezarritako baldintzetan enpresei zerbitzua eskaintzeko. Enpresa aholkulariak aipatu zerbitzuak fakturatuko dizkio SPRI, Sari behin SPRI, SAK berrikuntza agenda edo dagokion berrikuspena balioztatu ondoren.

– Certificados de la empresa consultora acreditativos de cumplimiento a) de las obligaciones tributarias y b) con la Seguridad Social.

– Certificado de Vida Laboral de la persona consultora.

– Certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad de la cuenta bancaria señalada en la solicitud a nombre de la empresa consultora.

Transcurrido dicho plazo de 10 días sin haberse recibido la solicitud con su documentación completa, la solicitud será archivada sin más trámites, entendiéndose que la persona solicitante renuncia a la misma.

6.– PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN.

Solamente se admitirán aquellas solicitudes que cumplan los requisitos formales y la experiencia mínima exigidas.

Las solicitudes admitidas, se evaluarán teniendo en cuenta la experiencia profesional y de proyectos aportadas por cada persona consultora y su adecuación a los trabajos a desarrollar en el marco de la iniciativa Innova.

SPRI, S.A., comunicará el resultado de la selección en un plazo no superior a 5 meses desde la presentación de la solicitud junto con la documentación adicional exigible. Caso de ser sobrepasado este plazo se entenderá que la solicitud ha sido denegada.

Una vez concluida la formación e incluida en el Registro la persona consultora y en su caso, los datos de la empresa de consultoría a la que aquella pertenece, SPRI, S.A. habilitará los procedimientos internos que permitan a las PYMEs disponer del número de jornadas que como disponibles para esta iniciativa haya señalado la persona consultora en su solicitud o superior siempre que el mismo no suponga merma del servicio.

7.– CONDICIONES DE CONTRATACIÓN Y FACTURACIÓN.

Las empresas de consultoría a las que pertenezcan las personas acreditadas como consultoras por la iniciativa Innova que presten los servicios de apoyo a las PYMEs de la CAPV para la definición o revisión de sus agendas de innovación, previstos en el apartado 3.1 del presente anuncio, serán contratadas por SPRI, S.A. de acuerdo al siguiente procedimiento: cada vez que una PYME beneficiaria de las ayudas previstas en el programa «Berrikuntza Agendak» seleccione un consultor de entre los acreditados para actuar en el marco de la iniciativa Innova, según lo establecido en el presente anuncio, SPRI, S.A. emitirá a la empresa consultora una comunicación que tendrá el valor de pedido en firme para prestar el servicio en la empresa en las condiciones establecidas en la metodología Innova. La empresa consultora facturará dichos servicios a SPRI, S.A. una vez que SPRI, S.A. haya validado la agenda de innovación o su pertinente revisión.

Hura fakturatu eta justifikatzeko, «Berrikuntza Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/) programaren web orrian eskura jartzen diren aplikazio informatikoak erabiliko dira.

Fakturak ordaintzeko, aholkularitza enpresek beren banku kontua eman beharko dute nahitaez.

8.- DATUEN TRATAMENDUA.

SPRI, SAK jakinarazten du emandako datu pertsonalak bere jabegoko fitxategi informatiko batean sartu ahal izango direla, Erregistro hau eta iragarki honetan aurreikusitako gainerako jarduerak edota Berrikuntza Agendak programaren bidez sor daitezkeenak kudeatzeko, hala nola SPRI, SAren eta Eusko Jaurlaritzaren programen eta jardueren informazioaren helburuetarako, beste alde batetik, Foru Aldundiei ere laga dakizkieke erabilera bererako.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edota horien aurka agertzeko eskubidea du erabiltzaileak, Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak zehaztutakoaren arabera, horretarako, idatzi bat bidali behar du SPRI, SAren helbidera: Urkijo zumar-kalea, 36 - 4. solairua (Bizkaia Plaza eraikina), 48011 Bilbao, Bizkaia.

Bilbao, 2008ko ekainaren 16a.

Zuzendari nagusia,
MAURICIO LAZCANO BROTONS.

Para la facturación y justificación de la misma se utilizarán las aplicaciones informáticas que se pongan a su disposición en la página web del programa «Berrikuntza Agendak» (www.plusinnova.net/berrikuntza-agendak/).

Para el pago de las facturas las empresas de consultoría deberán facilitar obligatoriamente su cuenta bancaria.

8.- TRATAMIENTO DE DATOS.

SPRI, S.A., informa que los datos personales facilitados podrán ser incorporados a un fichero informático de su propiedad con la finalidad exclusiva de gestionar el Registro y resto de actuaciones contempladas en este anuncio o que resulten del Programa Berrikuntza Agendak, o de información de los programas y actuaciones de SPRI, S.A. y Gobierno Vasco, pudiendo ser asimismo cedidos para los mismos usos a las Diputaciones Forales.

Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición podrán ser ejercidos mediante comunicación escrita dirigida a SPRI, S.A., Alda Urquijo, 36-4.º, Edificio Plaza Bizkaia - 48011 Bilbao, de acuerdo a lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal.

Bilbao, a 16 de junio de 2008.

El Director General,
MAURICIO LAZCANO BROTONS.